

SOLUZIOAK URRIA

Hona hemen urrian Euskal Herriko herri desberdinetako umeek beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.

Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

NAHAS-MAHAS

Ene, baina zenbat modu ditugu TRIKUA esateko? Alboko orrialdean bi modu dituzu, eta hemen hirugarren bat. Eraman hizki bakoitza bere geziak agintzen dizun tokira eta hitz hori zein den asmatuko duzu.

ENGAINAGARRIAK

Ba al dakizu zenbat triku hiltzen diren errepeidea pasa nahian, kotxeak harrapatuta? Guk ere ez dakigu zehatz-mehatz zenbat diren, baina asko eta asko direla ziur da. Gaixoak. Honoko zortzi irudi-zatitxoen artean erdiak engainagarriak dira, hau da, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Bereiz itzazu.



Bilatu

Gure trikuari barraskiloak, bareak, intsektuak, harrak, txoritxoak, arrautzak, zizak, fruitu gorriak eta meloiak gustatzen zaizkio. Bilatu eta margotu. Bide batez, elementu bat falta da. Zein?

SOLUZIOAK URRIA



U	R	T	A	K	I
K	A	I	T	R	U
R	T	K	I	U	A
I	U	A	K	T	R
T	I	U	R	A	K
A	K	R	U	I	T

Sudokua

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak, TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, begiratu irudiño bakoitzari zein hizki dagokion eta biribilean idatzi. Esaera zahar bat agertuko zaizu.



S	N	B	U	C	P
E	A	I	X	S	O
S	J	G	A	I	K
U	P	R	U	R	B
A	I	O	R	A	E
A	O	U	A	T	A



AIZU, BA
NIREZTAT TRIKUA
SAGARROIA
DA



HARA!
NIREZTAT, BERRIZ,
KIRIKINOIA
DA



K	U	N	B	I	A
I	A	I	R	O	S
T	R	I	Z	U	K
U	P	I	K	A	L
A	N	T	I	N	E
A	S	T	A	O	A



Hitz ezkutujak

Zer diote gure neska-mutilek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki geziek agintzen dizuten moduan. Abiapuntua, bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxoan duzu. Jakin ezazu trikuari deitzeko moduaz ari direla biak.

T R I K U A R E N U M E A

A R A N T Z E K I N

J A I O T Z E N

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	.	,	!	?